**Nº de Expediente: 08-315**

Ametxeko Artezkaritza-Batzordeak bilera egin du, 2008ko azaroaren 6an, arratsaldeko 18:00etan, Zelaieta Zentroko batzargelan.

**Bertaratuak:**
**Presidentea**: Sara Chamizo Diez andrea.
**Batzordekideak:**
Beatriz Calvo andrea
Javier Atxurra jauna
Belén Saralegi andrea
Vicente Silva jauna

**Etortzerik izan ez duten batzordekideak:**
Mikel Iriondo jauna

**Idazkaria**:
Ines Gandarias, Ametx erakunde autonomoaren euskara-arduraduna.

**Batzordekideez gain, honako hauek ere izan dira bileran:**

Javier Cortazar jauna, Ametx erakunde autonomoaren aholkulari juridikoa.
Jon Atxa jauna, Ametx erakunde autonomoaren koordinatzaile orokorra, 3, 4, 5, 6 eta 7. puntuak aztertu direnean, beharrezko iritzi zaien argibideak emateko.
Sabin Rekalde jauna, Amorebieta-Etxanoko Udal Euskaltegiaren zuzendaria, 8. puntuan, aurkezpena egin eta beharrezko iritzi zaien

**1.- AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTU.**

Aho batez onartu da aurreko bilerari dagokion akta.

**2.- 2007 URTEKO FAKTUREN ONARPENA.**

IKUSITA aurten ordaintzeko, 2007ko ekitaldiari dagokin faktura (Fanfarre Sugarriren faktura da, HAIZETARA 2007 jaialdiari dagokiona) aurkeztu dela eta, hori horrela, gastua zegokion Udal Aurrekontuari egozterik ez dagoela.

IKUSITA onartzeko aurkeztu den fakturaren zenbatekoa 847,00 €-koa dela, eta Lege eta Kontabilitate teknikariak eta Udaleko kontuhartzaileak beren onirizpena eman diotela, eta aurrekontuetan badela gastuok onesteko eta ordaintzeko kredituririk.

KONTUAN HARTUTA faktura hori 2008ko Udal Aurrekontuari egotzi behar zaizkiola, eta horretarako behar adinako kreditua badela.

***1.- LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.***

*Se apueba por unanimidad el acta de la sesión anterior.*

***2.- APROBACIÓN DE FACTURAS CORRESPONDIENTES AL EJERCICIO 2007.***

*RESULTANDO que en el presente año se ha presentado para su abono factura correspondiente al ejercicio de 2007 (Fanfarre Sugarri, correspondiente a su actuación en HAIZETARA 2007), por lo que dicho gasto no pudo contraerse con cargo al Presupuesto Municipal del año correspondiente.*

*RESULTANDO que el importe de la factura presentada para su aprobación asciende a 847,00 €, que tienen la conformidad del Técnico Jurídico Contable y La Interventora Municipal de fondos, existiendo crédito presupuestario para su aprobación y abono.*

*CONSIDERANDO que el abono de la citada factura ha de realizarse con cargo al Presupuesto Municipal para 2008, y que existe crédito suficiente para ello.*

KONTUAN HARTUTA Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren arabera, diru-sarrerei dagokienez aurrekontu-ekitaldi batean onesten diren eskubideak, eratorri dituen epealdia dena delarik ere, ekitaldi horrexeri egotziko zaizkion bitartean, ekitaldian gauzatzen diren gastuei dagokienez, xedatuta dagoela eskumena daukan organoak baimenduko dituela, Gastuen Aurrekontuaren kreditu jakin bati egotziz, eta aurreko ekitaldietan gauzatutako gastuetarako, eskumena daukan organoak jarduneko Aurrekontuaren pentsura baimen ditzakeela, aldez aurretik aurreko ekitaldiko Kreditu-Geldikinak erantsirik, Foru Arau horretan ezarrita dauden mugekin eta kasuetan.

*CONSIDERANDO que, la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria de Entidades Locales del territorio Histórico de Bizkaia, así como para los ingresos establece que se imputarán al ejercicio presupuestario los derechos reconocidos en el mismo cualquiera que sea el período del que deriven, para los gastos realizados durante el ejercicio dispone que serán autorizados por el órgano competente con cargo a un determinado crédito del Presupuesto de Gastos, posibilitando para los gastos realizados en ejercicios anteriores su autorización por el órgano competente con cargo al Presupuesto en curso previa Incorporación de los Remantes de Crédito del ejercicio anterior con las limitaciones y en los casos establecidos por la citada Norma Foral.*

KONTUAN HARTUTA ez dagoela, hala denean, gastua aurreko ekitalditik eransten diren kreditu-geldikinen pentsura onesterik, eta Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Arautegia den 124/1992 Foru-Dekretuaren 48.3 artikuluan eta osagarri gisa 500/1990 Errege Dekretuaren 60.2 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, Artezkaritza Batzordea da gastua onesteko eskumena daukan organoa.

*CONSIDERANDO que, el gasto no es susceptible de ser aprobado con cargo a los remanentes de crédito que, en su caso, se incorporen del ejercicio anterior y según lo establecido en el artículo 48.3 del Decreto Foral 124/1992, Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales y con carácter supletorio el artículo 60.2 del Real Decreto 500/1990, el órgano competente para su aprobación es la Junta Rectora.*

Artezkaritza Batzordeak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU:

Faktura hori onestea.

*La Junta Rectora por unanimidad*

*ACUERDA:*

*La Aprobación de la mencionada factura.*

**3.- AMETX ERAKUNDE AUTONOMOAREN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN ALDAKETAREN ONARPENA.**

Presidentearen esanez, Ametx erakunde autonomoaren garbiketa-lanetarako kontratua handiagotu beharra dago, erabileraren ondoriozko beharrizanen zioz. Hain zuzen ere, Gazte-Txokora sartzeko eskailerak, Gazte-txokoa bera, etxabeko ataria, entsegu-lokalak, kontzertu gela eta ludoteka igandeetan ere garbitu beharra sumatu da. indarrean dagoen kontratuaren %5,06ko gehikuntza lekarke horrek.

Ametxen aholkulari juridikoak adierazi duenez, kontratua handiagotzea ez ezik, eta kontuan hartuta luze gabe iraungitzeko dela, kontratuaren luzapena ere onartu beharko litzateke. Bertaratutakoei gogorarazi dienez, bi urteko kontratua da, gehienez beste bi urtez luza daitekeena, urtebeteko bi luzapenez.

Aurrekontua handiagotzeari dagokionez, honako zehaztapena eman du: hileko kostua 9.432,00 eurokoa izatetik, 9.909 eurokoa izatera pasako

***3.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DEL ORGANISMO AUTÓNOMO AMETX.***

*La presidenta expone la necesidad de ampliación del contrato de limpieza del organismo autónomo Ametx motivada por necesidades de uso. En concreto, se trata de la limpieza de escaleras de acceso y sala de Gazte-Txoko, Hall planta sótano, aula Polivalente servicios planta sótano, locales de ensayo, Sala de Conciertos y Ludoteca en domingos. Eso supone un incremento del 5,06% del contrato vigente.*

*El asesor jurídico de Ametx indica que, además de aprobar la ampliación del contrato, y teniendo en cuenta su pronta finalización, también habría que aprobar la prórroga del mismo. Recuerda a los asistentes que se trata de un contrato de dos años prorrogable por otro s dos años, en prórrogas de 1+1 años.*

*Respecto a la ampliación presupuestaria, se detalla que se pasaría de un coste mensual da 9.432,00*

litzateke.

Bozketa eginda, honakoa erabaki du Artezkaritza Batzordeak ahobatez:

Ametx erakunde autonomoaren garbiketa lanetarako kontratua handiagotzea eta kontratua urtebetez luzatzea. Proposamena helaraziko zaio enpresa esleipendunari.

**4.- <u>ZORNOTZA ARETOKO ASISTENTZIA TEKNIKOA ETA ZERBITZU OROKORREN KONTRATUAREN ALDAKETAREN ONARPENA.</u>**

Egoera zein den azaldu du presidenteak. Kontratu hau ere, 2009ko maiatzean amaituko dena, handiagotua izan beharko litzateke, zerbitzu honen bidez Zelaietaren beharrizanak ere estaltzeko xedez, kontuan hartuta bertako kontzertu gelan eta auditorioan gero eta zuzeneko emanaldi gehiago ari dela eskaintzen. Ondore horretarako egindako txosten teknikoa irakurri du.

Calvo andreak bere sasoian onetsitako kontratuaren 11. puntuan ezarrita dauden irizpideen gaineko argibidea eskatuta, halaxe egin dute presidentziak eta aholkulari juridikoak, eta horren ostean bozketari ekin zaio. Bozketa eginda, honako hau erabaki du aho batez Artezkaritza Batzordeak:

Onartu egin da Zornotza Aretoko asistentzia teknikoa eta zerbitzu orokorren kontratuaren aldaketa.

**5.- <u>LUDOTEKA ZERBITZUAREN ESLEIPENERAKO PLEGUEN ONARPENA.</u>**

Ludoteka zerbitzuaren kontratazioan aginduko duten agiriak onesteko proposamena aurkeztu du presidenteak.

Zerbitzuaren erabiltzaileen adin-tartearen gaineko oharra egin du Calvo andreak, eta aintzat hartu da, agirietan antzeman zaion akats hori zuzentzeko.

Atxa jaunak adierazi duenez, 3 eta 11 urte bitarteko umeei ematen zaie zerbitzu hau, bi adin-tartetan banaturik: 3-8 eta 8-11. Espazio bereiztu bi daude horretarako. Oraingo honetan erregulatu egingo da egoera; izan ere, hasiera batean 5 urtetik gorako umeentzako zerbitzua izanagatik ere, eskaintza zabaldu egin baitzen, adin horretatik beherakoen eskariari erreparaturik.

Ludotekaren erabiltzaileen kopuruaren gaineko datuak eman dakizkiola eskatu du Calvo andreak.

Era berean, kontratu honetan, aurrekoetan ez-

*euros, a un coste de de 9.909 €.*

*Realizada la votación, la Junta Rectora acuerda por unanimidad:*

*Aprobar la ampliación del contrato de limpieza de Ametx erakunde autonomoa, así como la primera prórroga de un año, que será propuesta a la empresa adjudicataria.*

***4.- <u>APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE ASISTENCIA TÉCNICA Y SERVICIOS GENERALES DEL ZORNOTZA ARETOA.</u>***

*La presidenta expone la situación, refiriendo que el contrato en cuestión, que finaliza en mayo de 2009, también debería ser ampliado, con el objeto de que el servicio diera cobertura también a Zelaieta, teniendo en cuenta el aumento de actuaciones en directo que se ofrecen en la sala de conciertos y el auditorio del centro. Da lectura al informe técnico realizado al efecto.*

*La Sra. Calvo solicita le sean aclarados los criterios establecidos en el punto 11 del contrato aprobado en su día, lo cual hacen la presidencia y el asesor jurídico, tras lo cual se pasa a la votación y la Junta Rectora acuerda, por unanimidad,*

*Aprobar la modificación del contrato de asistencia técnica y servicios generales del Zornotza Aretoa.*

***5.- <u>APROBACIÓN DE LOS PLIEGOS QUE REGIRÁN LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LA LUDOTECA.</u>***

*La presidenta presenta la propuesta de aprobación de los pliegos que regirán la contratación del servicio de ludoteca.*

*La Sra. Calvo hace una observación sobre la franja de edad de los usuarios/as del servicio, y se toma nota para su corrección.*

*El Sr. Atxa refiere que el servicio se da a niños/as de edades comprendidas entre 3-11 años, para lo cual están establecidos dos espacios diferenciados: 3-8, 8-11. Se regulariza la situación, pues e inicialmente fue un servicio destinado a niños/as a partir de 5 años, pero la oferta se amplió, vista la demanda de menores de esa edad.*

*La Sra. Calvo solicita le sean facilitados datos sobre número de usuarios/as de la ludoteca.*

*Asimismo pregunta por qué no se prórroga este*

bezala, luzapen-aukerarik zergatik ez dagoen galdetu du.

Atxa jaunak eta Cortazar jaunak erantzun diote, esanez zerbitzu hau etengabe aldatuz eta eboluzionatuz doala demandaren arabera, eta horrela jokaturik, beharrizanak aurreikusi eta egokiago erantzun ahalko zaiela, zerbitzurako aurrekontuak esleitzeko tenorean.

Calvo andreak eskaintza ekonomikoari emandako puntuaketa txikia nabarmendu nahi izan du, esanez bere aburuz horixe litzatekeela irizpiderik objektiboena.

Irizpide horri pisu handiagoa emango balitzaio, langileak ia boluntario gisa lan egiten duteneko elkarteak aurkeztu eta, beste eskaintza batzuen aldean abantaila izanik, prezioak izugarri beheratzeko aukera izango luketela ohartarazi dio presidenteak.

Cortazar jaunak gaineratu du honelako zerbitzuetan ez zaiola irizpide ekonomikoari hainbesteko pisua ematen, zerbitzuon hartzaileen nolakotasuna aintzat hartuta batez ere.

Ludotekan erabili ohi den hizkuntzaren gainean ere jardun dute batzarkideek. Atxa jaunak adierazi du erabiltzaileen ia %100 euskaldun izanik, zerbitzua euskaraz eman ahal izatea eta begiraleek hizkuntza horretan komunikatzeko gaiturik egotea dela bermatu nahi dena.

Ludoteka zerbitzuaren kontratazioan aginduko duten agiriak onartu ditu Artezkaritza Batzordeak bozketa eginda. Honakoa izan da bozketaren emaitza:

Aldeko lau (4) boto: Atxurra jauna, Saralegi andrea, Silva jauna eta Chamizo andrea.

Abstentzio bat: Calvo andrea.

**6.- <u>ZELAIETA ZENTROKO GAZTE INFORMAZIO BULEGOAREN, GAZTE-TXOKOAREN, ENTSEGUETARAKO LOKALEN ETA ZELAIETAKO BESTE ZERBITZU OSAGARRI BATZUEN ESLEIPENERAKO PLEGUEN ONARPENA.</u>**

Atxa jaunak aurkeztu du gaia. Lehenik eta behin esan du gaur egun Gazte Informazio Bulegoaren zerbitzuaren esleipendun den Novia Salcedo fundazioak jakinarazi duela ez diola zerbitzugintza honi eutsiko (orokorrean, ez da Ametxen kasua soilik). Zerbitzuaren ezaugarriak aintzat hartuta, egoki iritzi zaio Gazte-Txokoaren eta Entsegu-lokalen zerbitzuekin batu eta agiri berberetara biltzeari.

Calvo andreak hainbat punturi buruzko galderak egin ditu, eta hala Atxa jaunak nola

*contrato, igual que los anteriores.*

*El Sr. Atxa y el Sr. Cortazar responden que es un servicio que va variando y evolucionando constantemente en función de la demanda, y que ésta es una manera de poder prever más adecuadamente las necesidades y adaptar los presupuestos destinados al servicio.*

*La Sra. Calvo incide en la pequeña puntuación otorgada a la oferta económica que sería, a su entender, el criterio más objetivo.*

*La presidenta aduce que, si primara dicho criterio, podría darse el caso de que se presentaran asociaciones cuyo personal trabajara casi en régimen de voluntariado, lo que abarata tremendamente los costes y que competirían con gran ventaja frente a otras ofertas.*

*El Sr. Cortazar añade que en este tipo de servicios no prima el criterio económico teniéndose en cuenta, sobre todo ,el destinatario del mismo.*

*Se trata también el tema del idioma a utilizar en la ludoteca y el Sr. Atxa detalla que, teniendo en cuenta que prácticamente el 100% de los usuarios/as es vasco-parlante, se debe garantizar el conocimiento y uso del euskera por parte de los monitores/as.*

*La Junta Rectora acuerda la aprobación de los pliegos que regirán la contratación del servicio de ludoteca, con el siguiente resultado:*

*Cuatro (4) votos a favor de: Sr. Atxurra, Sra. Saralegi, Sr. Silva, Sra. Chamizo.*

*Abstención de Sra. Calvo.*

***6.- <u>APROBACIÓN DE LOS PLIEGOS DE ADJUDICACIÓN DE LOS SERVICIOS DE OFICINA DE INFORMACIÓN JUVENIL; GAZTE-TXOKOA; LOCALES DE ENSAYO Y OTROS SERVICIOS COMPLEMENTARIOS DEL CENTRO ZELAIETA.</u>***

*El Sr. Atxa expone el tema explicando, en primer lugar, que la fundación Novia Salcedo, adjudicataria del servicio de oficina de información juvenil, ha comunicado su decisión de no continuar prestando dicho servicio en adelante, no solamente en Ametx, sino también en el resto de oficinas de información juvenil que gestiona en la actualidad. Teniendo en cuenta las características del mismo, se ha estimado procedente conjugarlo con los servicios de Gazte-Txokoa y Locales de Ensayo, e incluirlo en los mismos pliegos.*

*A las preguntas sobre diferentes puntos realizadas por la Sra. Calvo contestan tanto el Sr. Atxa como la propia presidenta, aclarando las diferentes*

presidenteak berak, argitu egin dizkiote azaldutako zalantza guztiak. Hori eginda, bozketari ekin zaio, eta Artezkaritza Batzordeak, honako hau erabaki du aho batez:

Onartu egin dira Zelaieta zentroko Gazte Informazio Bulegoaren, Gazte-Txokoaren, Entseguetarako Lokalen eta Zelaietako beste zerbitzu osagarri batzuen esleipenerako agiriak.

*dudas expuestas, tras lo cual se pasa a la votación y la Junta Rectora acuerda, por unanimidad,*

*Aprobar los pliegos de adjudicación de los servicios de Oficina de Información Juvenil; Gazte-Txokoa; Locales de Ensayo y otros servicios complementarios del Centro Zelaieta.*

**7.- ZELAIETAKO PILOTALEKUAN 2008-2009KO GABONETAN IRRISTAKETA-PISTA SINTETIKOA JARTZEKO ETA MUNTATZEKO ADJUDIKAZIO-AGIRIEN ONESPENA.**

Gai ordenaren zazpigarren puntuaren aurkezpena egin dute Atxa jaunak eta presidenteak, 2007an eskainitako zerbitzuak izanik arrakasta azpimarraturik eta aurreko edizioarekiko alde bakarra pistaren neurriak baino ez direla adierazirik; izan ere, iazkoa baino 100 $m^2$ handiagoa izango baita, etorri ziren erabiltzaile guztiak aintzat hartuta txiki geratu zelako.

Era berean, pista sintetikoa izateak energia kontsumoan dakarren aurrerapena ere gogorarazi da.

Zelaieta zentroko pilotalekuan 2009-2009 Gabonetan irristaketa pista sintetikoa jartzeko eta muntatzeko adjudikazio-agirien gaineko bozketa eginda, honakoa izan da emaitza:

Aldeko lau (4) boto: Atxurra jauna, Saralegi andrea, Silva jauna eta Chamizo andrea.

Abstentzio bat: Calvo andrea.

Puntu honen ostean bileratik alde egin du Jon Atxa jaunak.

***7.- APROBACIÓN DE LOS PLIEGOS DE ADJUDICACIÓN DE SUMINISTRO Y MONTAJE DE UNA PISTA DE PATINAJE SINTÉTICA EN EL FRONTÓN DEL CENTRO ZELAIETA PARA LA CAMPAÑA DE NAVIDAD 2008-2009.***

*El Sr. Atxa y la presidenta de la Junta Rectora presentan este séptimo punto del orden del día subrayando el éxito del servicio ofrecido en 2007 y apuntando que la única variación respecto a la edición anterior es el tamaño de la pista, que aumentará en 100 $m^2$, debido precisamente a la afluencia de público que hizo que resultara pequeña.*

*Se subraya asimismo el ahorro de consumo energético que conlleva la instalación de pistas sintéticas frente a las de hielo, y se procede a la votación de los pliegos que regirán la adjudicación de suministro y montaje de una pista de patinaje sintética en el frontón del Centro Zelaieta para la campaña de navidad 2008-2009, con el siguiente resultado:*

*Cuatro (4) votos a favor de: Sr. Atxurra, Sra. Saralegi, Sr. Silva, Sra. Chamizo.*

*Abstención de Sra. Calvo.*

*Tras lo cual se ausenta el Sr. Atxa.*

**8.- AMOREBIETA-ETXANO UDAL EUSKALTEGIAREN 2008-2009 IKASTURTERAKO KLASE-EGUTEGIAREN PROPOSAMENAREN ONARPENA.**

Sabin Rekalde, Udal Euskaltegiaren zuzendaria, etorri da bilerara puntu honi dagozkion azalpenak ematera.

Lehenik eta behin, bere poztasuna eta sorpresa adierazi ditu, zuzendari denetik hamahiru hilabete igaro diren honetan, lehenengoz deitu dutelako bilera batera.

Ondoren, 2008-2009 ikasturterako klase-eskaintza aurkezteari ekin dio.

***8.- APROBACIÓN DE LA PROPUESTA DE CALENDARIO LECTIVO PARA EL CURSO 2008-2009 DEL EUSKALTEGI MUNICIPAL DE AMOREBIETA-ETXANO.***

*Se incorpora a la reunión el Sr. Sabin Rekalde, director del Euskaltegi Municipal.*

*Expresa, en primer lugar, su alegría y su sorpresa por haber sido convocado por primera vez en trece meses a una junta.*

*Pasa a continuación a la presentación de la oferta lectiva del curso 2008-2009.*

Rekalde jaunak batzordeak hartuko duen erabakiaren berri jakin nahi duela esan duenez, presidenteak gogorarazi dio klase-egutegiaren gaineko informazioa emateko xedez gonbidatu duela eta, hori horrela, egiteko hori burututakoan eta artezkaritza batzordekidea ez denez gero, bileratik joan beharko duela, artezkaritza batzordeak eztabaidari eta, bidezkoa bada, onespenari ekin dakion, eta hala egingo duela erantzun du Rekalde jaunak.

*Ante la insistencia del Sr Rekalde por conocer la decisión a tomar por la junta, la presidenta le recuerda que ha sido invitado a la reunión por la presidenta con el claro objetivo de informar sobre el calendario lectivo por lo que, una vez realizada dicha función, y al no ser miembro de la junta rectora, deberá abandonar la reunión para que la junta pueda pasar al debate y correspondiente aprobación, si procede, a lo que el Sr. Rekalde responde que así procederá.*

Sabin Rekaldek euskaltegiaren eboluzioaren atzera begirakoa eginez eta 2005az geroztiko eskaintza azalduz eman dio hasiera aurkezpenari, urte hartan aldatu baitzen zenbait jarduketa-era, zentroaren baliabideen optimizazioa bilatze aldera.

Artezkaritza Batzordearekin 2006ko abenduan lortutako akordioa aipatu du, alderdietako baten alderi batek, titularrak alegia, akordio hori hautsi duela esanez.

Hala ere, akordio hari jarraiki egindakoa da 2008-2009 ikasturterako planteamendua. Hainbat dira harrezkero gertatutako aldaketak, eta zerrendatu egin ditu:

*Dicho lo cual, Sabin Rekalde comienza su presentación haciendo una retrospectiva de la evolución de la oferta del euskaltegi a partir de 2005, año en el que se cambian ciertos modos de actuación a fin de optimizar los recursos del centro.*

*Menciona el acuerdo alcanzado con la junta rectora en diciembre de 2006, para decir a continuación que una parte de una de las partes, es decir, la titular, ha roto dicho acuerdo.*

*El planteamiento para el curso 2008-2009, sin embargo, fue elaborado en base a dicho acuerdo. Reseña que desde entonces son muchos los cambios acaecidos, entre los que enumera los siguientes:*

-Lan Hitzarmenean norberaren arazoetarako sei egun jarri izana.

-Ametxeko langileen ordezkari sindikala Udal Euskaltegiko langileriari dago atxikita.

-Ametxeko langileen hautaketa-prozesuetako epaimahaikideetako bat , udal euskaltegiko irakaslea.

-HABEren azterketen epaimahaikide izaten da UEko irakaslea, halaxe ezarrita baitago.

*-Establecimiento de seis días de libre disposición en el Convenio Laboral.*

*-La representación sindical de los trabajadores/as de Ametx recae en una persona adscrita al Euskaltegi Municipal.*

*-Presencia de trabajadores del euskaltegi municipal en los tribunales de selección de personal.*

*-Presencia en los tribunales de exámenes de HABE, requisito establecido por dicha institución.*

Euskaltegiaren zuzendaritzak 2007-2008rako egindako proposamenean beraiek hartu zuten ordezkapenen kargu, baina zoramena zela ikusita, eta aurreko ikasturteko esperientziak eskarmentaturik, 2008-2009rako proposamenera beste irakasle bat lanaldi erdiz kontratatzeko proposamena bildu zen.

*Para el curso 2007-2008 la propuesta realizada por la dirección del euskaltegi fue la de hacerse ellos mismos cargo de sustituciones que hubiera que realizar, pero habiendo visto que era una locura, y escarmentados de lo sucedido el curso pasado, en la propuesta para 2008-2009 se incluía la contratación de un profesor/a más para media jornada.*

Udal Euskaltegiaren zuzendariarekin irailaren 30ean izaniko elkarrizketan, proposamena bi herenetarako zela zehaztu du Ines Gandariasek, eta ez lanaldi erdiz, zuzendariak esan duen bezala.

*Ines Gandarias matiza que en la conversación mantenida con el director del Euskaltegi Municipal en fecha 30 de septiembre, la solicitud era de una contratación a dos tercios de la jornada no a media jornada como apunta el director del euskaltegi municipal.*

Euskaltegiaren zuzendariak adierazi duenez, azaldutako guztiaren ondorioa ikasturtea titularraren onirizpenik gabe hastea izan zen eta derrigortuta suertatu dira, egunaren edozein ordutan ordezkapenak egitera, lan-ordutegirik izan gabe, lan-baldintzetan izaniko hobekuntzak gorabehera.

*Según refiere el director del centro, el resultado fue el inicio del curso sin visto bueno de la titular, viéndose obligados, a día de hoy, a realizar sustituciones a cualquier hora del día, sin tener horario de trabajo, a pesar de la existencia de mejora de las condiciones laborales.*

Horrela, euskaltegiko irakasle batek lan-hitzarmenean ezarrita dauden bere arazoetarako egunetako bat hartzen duenean, klasea prest utzi behar du. Lan-baldintzen hobekuntza izanagatik ere, lan-zama handiagoa dute beraiek.

Langileek bere gain hartu dute lan-hitzarmenaren arabera, ordezkari sindikalak hartzeko eskubidea duen orduen zama.

Era berean, eskatu du euskaltegiko langile batek bere lan-ordutegitik kanpoko ordezkapena egin behar duenean, enpresak zuzenean agintzeko; izan ere, berak, zuzendari den aldetik, ez du halakorik egingo, beldur baita langilearen eskubideak urratzen ote diren.

*Así, cuando un profesor/a del euskaltegi coge un día de libre disposición de los establecidos en el convenio laboral, debe dejar la clase preparada. A pesar de las mejoras laborales, el trabajo es cada vez mayor.*

*Los trabajadores están asumiendo las horas de por convenio corresponden a la representante sindical de Ametx.*

*Solicita, asimismo, que cuando un trabajador/a del euskaltegi deba realizar una sustitución fuera de su horario de trabajo, se lo ordene directamente la empresa ya que él, como director, no va a hacerlo, por temer que conculque los derechos básicos del trabajador/a en cuestión.*

Euskaltegian 2007ko irailean onartu zen lan-hitzarmena betetzen denentz galdetu dio zuzendariari Ametx erakunde autonomoaren lege-aholkularia den Javier Cortazarrek eta Rekalde jaunak erantzun dio bazekiela galdera hori egingo ziola, bertan ezarrita dauden 735 orduak aipatuz eta puntu hori duela hogei bat urtetik hona aldatu gabe dagoela esanez.

*A la pregunta del asesor jurídico de Ametx erakunde autonomoa Javier Cortazar referente al cumplimiento en el centro del convenio aprobado por el pleno municipal en septiembre de 2007, el Sr. Rekalde responde que sabia que le iba a hacer dicha pregunta, y hace referencia a las 735 horas lectivas anuales establecidas en el mismo, aduciendo que es un punto que está sin modificar desde hace unos veinte años.*

Silva jaunak galdetu dio zuzendariari ea zein den zentroak egiten duen eskaintza, eta Rekalde jaunak klase-egunen ordutegia azaldu dio, mailen araberakoa dela adieraziz. Hori esanda, bileratik irten eta Artezkaritza Batzordearen kideek gaia aztertu eta eztabaidatu dute. Azkenik, bozketa egin dute, eta aldeko lau (4) botorekin, Calvo, Saralegi, Chamizo eta Atxurra jaun/andrenekin eta Silva jaunaren abstentzioarekin, honako hau erabaki dut:

*El Sr. Silva inquiere al director sobre la oferta del centro, y el Sr. Rekalde explica el calendario lectivo correspondiente a los diferentes niveles, tras lo cual se ausenta y los miembros de la junta rectora pasan a estudiar y debatir el tema, llegando, con los votos afirmativos (4) de las Sras. Calvo, Saralegi y Chamizo y del Sr. Atxurra, y la abstención (1) del Sr. Silva, al siguiente acuerdo:*

Amorebieta-Etxanoko Udal Euskaltegiaren zuzendariari aginduko zaio Amorebieta-Etxanoko Udalaren Osoko Bilkurak 2007ko irailaren 27an onartutako lan-hitzarmena bete dadila bera zuzendari duen zentroan.

*Requerir al director del Euskaltegi Municipal de Amorebieta-Etxano para que se cumpla lo acordado en el convenio laboral aprobado por el pleno municipal del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano con fecha de 27 de septiembre de 2008.*

**9.- <u>NORBERAK LEKARKEENA.</u>**

Ez dago.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez zegoela, amaiera eman zaio bilerari, arratsaldeko zortzietan, eta guztiaren akta jaso da.

***9.- <u>RUEGOS Y PREGUNTAS.</u>***

*No hay Ruegos ni Preguntas.*

*Y no habiendo más temas que tratar, se da por finalizada la sesión a las veinte horas, extendiéndose la presente acta.*

Amorebieta-Etxanon, 2008ko azaroaren 6an

PRESIDENTEA

IDAZKARIA

O.E.

Sara Chamizo Díez

Ines Gandarias